

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Suteen Prebentzio, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko kaboaren 18 plazari dagokien barne-sustapeneko hautaketa-prozesuaren deialdia eta oinarriak onestea, C1 azpitaldean Legez Integratzeko, azaroaren 23ko 12/2023 legearen Bigarren Xedapen iragankorrekin bat etorritik, eta prebentzio, su-itzaltze eta salbamendu zerbitzua azaroaren 23ko 12/2023 legeari (12/2023 legea, azaroaren 23koa, suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuei buruzkoa) egokitze Giza Baliabideak Antolatzeko Planaren esparruan

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko martxoaren 6ko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udaleko prebentzio, su-itzaltze eta salbamendu zerbitzua suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuen azaroaren 23ko 12/2023 Legeari egokitze giza baliabideak antolatzeko plana (GBAP) onetsi zuen.

Azaroaren 23ko 12/2023 Legearen bigarren xedapen iragankorraren arabera, Administrazioak gehienez ere lau urteko epea du, legea indarrean jartzen denetik, lanpostuak lege-testu berrian aurreikusitako sailkapen-taldeei egokitzeko. Xedapen horren hirugarren apartatuak ezartzen duenez, Administrazioak kabo eta suhiltzaileak sartu ahal izango ditu C1 sailkapen-azpitaldeko kabo eta suhiltzaileen kategoria berrietan, barne-sustapeneko prozedura baten bidez, manu horretan adierazitako baldintzak betez.

2026ko irailaren 11n, Tokiko Gobernu Batzarrak barne-sustapeneko eskaintza onetsi zuen, Vitoria-Gasteizko Udaleko Prebentzio, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko kaboaren 18 plaza legez sartzeko C1 azpitaldean. Plaza horietako 9k nahitaezko 2. hizkuntza-eskakizuna dute. Plazak eskala honetakoak dira: administrazio berezia, su-itzaltze zerbitzuaren azpieskala, kaboaren kategoria, C1 azpitaldea.

Plaza horiek barne-sustapenaren bidez betetzeko, eta bat etorritik azaroaren 23ko 12/2023 Legearen bigarren xedapen iragankorraren 3. apartatuan ezarritakoarekin eta GBAPean kaboak C1 azpitaldean sartzeko ezarritako 6.4 neurriarekin, beharrezkoa da hautaketa-prozesua eta haren deialdia arautu behar duten oinarriak onestea.

Horren haritik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak — Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua — 127. artikuluan aitortzen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko ekainaren 22ko erabakiaren bitartez nire esku utzitako aginpidea betez, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. 18 kabo plaza barne-sustapenaren bidez betetzeko eta C1 sailkapen-azpitaldean, administrazio bereziko eskalan, su itzaltze zerbitzuaren azpieskalan eta kaboaren kategorian legez integratzeko deialdia, oinarriak eta eranskinak onestea, zeintzuek arautu behar baitute hautaketa-prozesua (Ebazpen honen eranskinean daude jasota). Plaza horietako 9k nahitaezko 2. hizkuntza-eskakizuna dute.

Bigarrena. Ebazpen hau eta bere eranskinak ALHAOn argitaratzea, eskabideak aurkezteko epeari hasiera emanez.

Ebazpen honen kontra, administrazio bidea amaitzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo, aukeran, berraztertzeko errekurtsua, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; eta errekurtsu horren ebazpen espresuaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsua ezesten duen ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko irailaren 11n

Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi-ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO

C-1 AZPITALDEAN LEGEZ INTEGRATZEKO PROZEDURAN 18 KABO PLAZA JABETZAN BETETZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK**Lehenengoa. Deialdiaren xedea.****1.1. Hauek dira deialdi honen helburuak:**

- 18 kabo-lanpostu (C1) betetzea; lanpostu horietatik 9k 2. HEa dute, derrigortasun-data igarota, eta zerbitzu aktiboan dauden langileentzat edo lanpostua gordetzea dakarten administrazio-egoeretan dauden langileentzat dira.
- C1 azpitaldera sartzea aurreko administrazio-egoeretan egon gabe etorkizunean zerbitzu aktibora itzuli behar duten Gasteizko Udaleko kaboaren kategoriako karrerako funtzionarioak.

1.2. Deialdi hau hautaketa-prozesu bat da, oposizio-sistemaren eta barne-sustapeneko txandaren bidezkoa, Suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuei buruzko azaroaren 23ko 12/2023 Legearen bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera.

1.3. Deialdiari buruzko informazioa:

Webgunea: www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak

Bigarrena. Betekizunak.

Betekizun hauek guzti-guztiak bete beharko dituzte izangaiek:

- a) Gasteizko Udalaren zerbitzura dagoen karrerako funtzionarioa izatea kaboaren kategorian (C-2 azpitaldea), edozein administrazio-egoeratan egonik, salbu funtzio gabetze irmoan; nolanahi ere, ez da modurik izango zerbitzu aktibora hautaketa-prozesu honen bidez itzultzeko.
- b) Eskabide-aldia amaitzerako, batxiler- edo tenikari-titulua (Erdi Mailako LHa) izatea, edo hamar urteko antzintasuna C-2 azpitaldeko kategorietan.
- c) Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea, eta, beraz, beharrezkoa den gaitasun psikofisikoa izatea eta deialdian eskainitako plazei dagokien lanpostuaren eginkizunak eta zereginak normaltasunez betetzeko gaitasun bateragarria izatea.
- d) Hizkuntza-eskakizun derrigorrezkoa duten plazetarako, IVAPek emandako euskararen 2. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria izatea, edo euskararen ezagutza egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiri ofizialen bat, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 mailarekin parekatua.
- e) Oinarri hauetan aurreikusitako azterketa-eskubideen tasa ordainduta izatea.
- f) C gidabaimena edukitzea, beharrezkotzat ezarritako unetik aurrera indarrean egongo dena uneoro; beraz, izangaiek ezingo dute parte hartu baldin eta gidabaimen hori aldi baterako edo betiko kendu bazaie, edo gidatzeko eskubideaz gabetu badituzte, dela administrazio-bidean, dela epaitegietan, eta, halaber, esleitutako puntu guztiak kendu bazaizkie.
- g) Titulua, nabigazio-lizentzia edo baliokidea izatea. Baimen horrek indarrean egon beharko du uneoro, beharrezkotzat ezarritako unetik aurrera.

Deialdian parte hartu nahi dutenek betekizun guztiak izan behar dituzte, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako.

Era berean, betekizun horiek guztiak izan beharko dira hautaketa-prozeduran zehar izendapenaren unera arte, c) letran –gaitasun funtzionalari buruzkoan– adierazitakoa izan ezik, hori karrerako funtzionario izendatu aurre-aurretik Udaleko zerbitzu medikoek egiaztatu beharko baitute.

Hirugarrena. Eskabideak aurkeztea.

3.1. Hautatze-prozesuan parte hartu nahi dutenek Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak) tramitatu beharko dute eskabide elektronikoa.

3.2. Hogei (20) egun balioduneko epea egongo da, deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Horretarako, igande eta jaiegunak ez ezik, larunbatak ere ez dira egun balioduntzat hartuko.

3.3. Probak zein hizkuntzatan (euskaraz ala gaztelaniaz) egin nahi dituzten adierazi beharko dute hautagaiek eskabidean. Atal horretan ezer adierazten ez badute, probak gaztelaniaz egin nahi dituztela ulertuko da.

3.4. Azterketa egiteko ordaindu beharreko tasak. Izangaiak zein lanpostutarako ematen duen izena, titulazio-talde horretakoei dagokien kuota ordaindu beharko du, izena emateko unean indarrean dagoen udal ordenantzaren arabera, eta bertan ezarritako salbuespen eta murriztapenak kontuan hartuz.

3.5. Tasaren ordainketa eskatzailearen izenean egin beharko da, eta eskabidea aurkeztean dirua sartzeko emango den aginduaren bidez ordaindu beharko da.

3.6. Behar den dokumentazioa ofizioz bilduko da espediente pertsonaletik eta elkarreragingarritasun-sistemen bidez.

3.7. Eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdian eskatutako baldintzak eta betekizunak onartzeko konpromisoa. Inork datu faltsurik ematen badu aurkeztutako dokumentazioan, hautatze-prozesutik baztertua izango da.

3.8. Izangaiak oinarri hauetan eskatutako baldintzak onartzen dituzte eta, eskabidea formalizatzen dutelarik, onartzen dute Gasteizko Udalak ahalmena duela erregistro ofizialetan kontsulta telematikoak egiteko titulazio akademiko ofizialak, hizkuntza-eskakizunak, emandako zerbitzuak, gidabaimenak eta abar egiaztatzeko, salbu eta kontsulta-modalitate hori ezinezkoa denean; kasu horretan dokumentazioa eskatuko zaio.

Laugarrena. Egokitzapenak.

Amatasunagatiko egokitzapenak. Haurdunaldian edo edoskitzaroan daudenek eskatu ahalko dute.

Bosgarrena.- Onartuen eta baztertuen zerrenda.

5.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du Funtzio Publikoaren zinegotziak, eta egoitza

elektronikoan ("Nire hautaketa-prozesuak") argitaratzeko aginduko, bidenabar adierazten delarik izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dutela akatsak erreklamatu eta zuzentzeko, halakorik gertatu bada.

Hautaketa-prozesua kudeatzeko, zerrenda bi atalekin emango da argitara:

a) Gasteizko Udaleko kabo lanpostu batean eta jatorriko kidegoen edo eskalan zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan eta Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legean lanpostua gordetzeko eskubidea dakarten administrazio-egoeretako beste batean dauden izangaia.

b) Aurrekoez besteko administrazio-egoera batzuetan dauden izangaia, prozesuan parte hartzeak ez duelarik inola ere ekarriko zerbitzu aktibora itzultzea.

Bereizketa hori antolaketari baino ez dagokio, eta ez du esan nahi hautaketa-prozesu desberdinak egingo direnik. Izangai guztiek oinarri, proba eta balorazio-irizpide berberak dituzte.

5.2. Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta haiek ebatzi ondoren, hautagai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onartuko du Funtzio Publikoaren zinegotziak, baztertuta geratzeko arrazoiak aipatuz. Hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, eta aukerako berraztertze-errekurtsioa, hilabeteko epean, egoitza elektronikoan ("Nire hautaketa-prozesuak") argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zerrendan agertzeak ez dakar interesdunei hautaketa-prozesu horietan eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela aitortzea. Aurkeztu beharreko dokumentaziotik ondorioztatzen bada ez dutela betekizunen bat betetzen, galdu egingo dituzte prozedura honetan parte hartetik erator daitezkeen eskubide guztiak.

Seigarrena. Epaimahai Kalifikatzailea.

6.1. Honako kide hauek osatuko dute Epaimahai Kalifikatzailea: Giza Baliabideen Zerbitzuko burua —zelina epaimahaiburu izango baita—, hiru epaimahaikide tekniko —zeintzuen artean bat, ezinbestean, IVA Pek hautatutakoa izango baita—, idazkaria eta dagozkien ordezkioak.

Epaimahai Kalifikatzailearen osaera nagusiki teknikoa izango da, eta espezialitate-printzipioaren arabera. Beraz, kide guztiek izan beharko dute deialdian eskaintzen diren plazetara sartzeko eskatzen den maila akademiko bereko edo handiagoko titulazioa, eta kideen erdiek, gutxienez, esperientzia egiaztatua izan beharko dute bete beharreko plazaren jakintza-arlo berean. Era berean, Epaimahai Kalifikatzailean, ordezkarien % 40 izan beharko da, gutxienez, sexu bakoitzetik, salbu eta justifikatzen bada hori ez dela egokia. Kideetako batek, gutxienez, prestakuntza edo esperientzia izan beharko du enplegu publikoaren arloko hautaketan. Hautaketa-organismoetako kideak arduratuko dira prozedura bakoitzaren gardentasunaz eta objektibotasunaz, edukiaz, proben konfidentziasunaz eta deialdiaren oinarriak zorrotz betetzeaz.

6.2. Epaimahai Kalifikatzaileak aukeran izango du aholkulariak biltzea bere lanera, hautaketa-prozesua osatzen duten proba guztietarako edo batzuetarako; aholkularien egitekoa, oster, aholkulari bakoitzaren espezialitate teknikoei buruzkoa baino ez da izango. Aholkulari horien jarduna ere objektibotasun-, inpartzialtasun- eta konfidentziasun-printzipioen mende egongo da, Euskal Enplegu Publikoaren

abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.9 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta aholkularitza eta laguntza teknikoa emango dute beren espezialitateei dagozkienetan, hitzarekin baina botorik gabe.

Epaimahai Kalifikatzaileak Udalaren Berdintasun Zerbitzuaren berdintasun-arloko aholkularitza izango du nahitaez.

6.3. Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera emango da argitara Epaimahai Kalifikatzailea osatuko duten kideen eta haien ordezkoen izenen zerrenda.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako kasuak gertatzen direnean, epaimahaikideak abstenitu egin beharko dira, eta deialdia egin duen agintariari eman beharko diote horren berri. Gainera, izangaiek eskubidea izango dute haiek errekusatzeko.

6.4. Epaimahai Kalifikatzaileak, hautaketa-prozesuaren edozein unetan, jakiten badu izangairen batek ez duela betetzen deialdian ezarritako betekizunen bat, hura baztertzeko proposamena egin beharko dio horretarako eskumena duen organoari —aldez aurretik interesdunari entzunaldia eskaini beharko dio—, eta izangaia egindako okerrean nahiz faltsutasunen berri eman.

Epaimahai Kalifikatzaileak, haren kideen arteko edozeinek eskatuta, bere esku izango du hautaketa-prozesuaren edozein faseri eragiten dion jatorrizko dokumentazioa galdegitea hautaketa-prozesuaren edozein unetan.

6.5. Egoitza elektronikoa ("Nire hautaketa-prozesuak") izango da erabakiak, deiak, ariketen egun-orduak nahiz bestelakoak argitara emateko lekua: www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak.

6.6. Lehenengo saioan, barne funtzionamendurako araudia onetsiko du Epaimahai Kalifikatzaileak.

6.7. Epaimahaietan parte hartzeagatik, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan —zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoa— aurreikusitako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango da.

6.8. Epaimahai Kalifikatzailearen argitalpenak

Epaimahai Kalifikatzailearen argitalpenak egoitza elektronikoa egingo dira ("Nire hautaketa-prozesuak").

Epaimahai Kalifikatzailearekiko komunikazioak posta elektronikoz egin ahalko dira, eta baliozkoak izango dira baldin eta eskabidean horretarako erregistratutako helbide elektronikotik bidaltzen badira, eta behar bezala jaso dela bermatzen duen erantzuna jaso bada posta elektronikoz. Alegazioak edo erantzunak jaso izanaren baieztapena —bi noranzkoetan— ezinbestekoa da komunikazioa baliozkotzat jotzeko. Epaimahai Kalifikatzaileak erreferentziako helbide elektronikoa adieraziko du bere argitalpenetan, eta dena delako gaiari dagokion kodea ere ezarri ahalko du, mezuak hobeto kudeatu eta antolatzearen.

Egoitza elektronikoa ("Nire hautaketa-prozesuak") argitalpen berriak egitean, mezu bat igorriko zaie deialdi jakin batera aurkeztu diren izangai guztiei, gaztigatzearen. Abisuak ez jasotzeak ez du baliogabetu edo aldatuko argitalpenean ezarritako epea.

Zazpigarrena. Hautaketa-prozedura

Izangaiak oposizio-sistemaren bidez hautatuko dira, C-1 azpitaldean legezko eran sartzeko. Oposizio-faseak ariketa bakarra izango du.

Oposizio-fasea.

Izangai guztiak daude salbuetsita Gai Komunetako 1.etik eta 8.era arteko gaiei buruzko probak egitetik, biak barne direla, zeren eta behar bezainbeste egiaztatu baitzuten bazekizkitela gai horiek kaboaren plazan (C-2) sartzeko gainditu zituzten probetan.

Oposizio-fasean, ariketa bakarra egin beharko da, nahitaezkoa eta baztertzaila.

Ariketa bakarra (ezagutza teoriko eta praktikoen proba), nahitaezkoa eta baztertzaila. Idatziz erantzun beharko zaio test erako galdetegi teoriko eta praktikoko bati (deialdiaren eranskineko "Gai Espezifikak" izeneko atalari dagozkion gaietan —9.tik 40.era arteko gaiak— oinarritua izango da): galderek lau erantzun izango dituzte aukeran, eta bakarra izango da zuzena. Epaimahai Kalifikatzaileak ezarritakoaren arabera egingo da ariketa hori, eta hark ezarritako epean eta baldintzetan.

Ariketa honen kalifikazioa 0 eta 10,00 puntu artekoa izango da. Ariketa honetan, erantzun zuzen bakoitza 0,25 punturekin baloratuko da, eta lor daitekeen gehieneko puntuazioa 10,00 puntukoa izango da.

Okerreko erantzunak, erantzun gabe utziak eta erantzun bikoitzak ez dira penalizatuko. Gutxienez 5,00 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak baztertuak izango dira automatikoki.

Ariketa hau ez da egingo galdera-sorta argitaratu eta 2 hilabete igaro baino lehen.

Zortzigarrena. Emaitzak argitaratzea.

Ariketa bakarra zuzendu ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileak behin-behineko emaitzak onetsi eta argitaratzeko aginduko du. Behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, izangaiek hamar egun balioduneko epea izango dute egokitze jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko dagokion Epaimahai Kalifikatzailearen aurrean.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta haiek ebatzi ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileak behin betiko emaitzak onetsiko ditu eta argitara daitezela aginduko du. Epaimahai Kalifikatzailearen erabaki horren bidez erantzundakotzat joko dira aurkeztutako erreklamazioak. Ez da erantzun pertsonalizaturik emango.

Epaimahai Kalifikatzaileak bi zerrenda bereizitan argitaratuko ditu argitalpenak:

a) Kabo gisa zerbitzu aktiboko egoeran edo lanpostua gordetzea dakarten egoeretan dauden izangaiak; zerrenda honetan azpitaldez aldatzeko eta C1 azpitaldeko izendapena egiteko «GAI» edo «EZ GAI» kalifikazioa jasoko da.

b) Zerbitzu aktiboan ez dauden gainerako izangaiak. Kasu honetan, hala badagokio, hautaketa-prozesua gainditu dutela adieraziko da, eta espediente pertsonalean jasoko da ezen aplikatu beharreko araudiaren arabera zerbitzu aktibora itzultzea eskatzen duten unean izango dituela ondorioak gaintitze horrek.

Behin betiko emaitzen erabakiaren aurka, izangaiek gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango diote Gasteizko Udaleko Funtzio Publikoko zinegotziari, hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bederatzigarrena. Egiatziariak aurkeztea.

Egiatziariak espediente pertsonaletik eta erregistro ofizialetatik eskuratuko dira. Hala egin ezin izatera, Epaimahai Kalifikatzaileak interesdunari eskatuko dizkio.

Hamargarrena. Izendapen proposamena eta lanpostuaz jabetzea.

10.1. Dokumentuak aurkezteko epea amaituta, eta gehienez ere 30 egun balioduneko epean, Epaimahai Kalifikatzaileak lanpostu birsailkaturako izendapen-proposamena egingo du, zerbitzu aktiboan edo lanpostua gordetzea dakarren administrazio-egoeretan egonik hautaketa-prozesua gainditu dutenen alde soilik. Izendapena C1 azpitaldeko kategoria bereko plaza baterako egingo da, izangaiak prozesu honen aurretik betetzen zuen lanpostuak zeukan hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun berarekin. Izangaiak hautaketa-prozesua gainditzin ez badu edo aurkezten ez bada, egungo plazan eta azpitaldean jarraituko du, eta plaza hori iraungitzekotzat joko da.

10.2. Epaimahai Kalifikatzaileak izendapen-proposamena egin eta lanean hasteko data ezarri eta argitaratu ondoren, izendatutako pertsona lanpostuaz jabetu beharko da, horretarako ezarritako epean, eta lanean hasteko data 30 egun baliodun atzeratu ahalko du —lanean hasteko data argitaratzen denetik zenbatzen hasita—, gehienez ere. Lanpostuaz adierazitako epe horretan jabetu ezean eta horretarako kausa justifikaturik agertu ezean, izangaia lanpostua utzitakoaren egoeran geratuko da, eta adituko da karguari uko egiten diola, eta eskubide guztiak galduko ditu.

Hamaikagarrena. Aldi baterako kontratazioetarako zerrendak.

Deialdi honek ez du kontratazio-zerrendarik sortuko.

Hamabigarrena. Gardentasuna eta datu pertsonalak babesteko politika.

12.1. Oinarri hauek eta halaber oinarriok egikaritzearen ondoriozko administrazio-egintza oro langileak hautatzeko prozesuetan eta aldi baterako kontratazioetarako zerrendak kudeatzeko prozesuetan datu pertsonalak babesteko udal protokoloaren pean daude.

12.2 Izena emateko inprimakia aurkezte hutsarekin, parte-hartzaileak argi adierazten du prozesuaren gardentasun-baldintzak eta datu pertsonalen babesaren murriztapena onartzen dituela.

EGITARAU ERANTSIA**GAI KOMUNAK**

1. gaia. 1978ko Espainiako Konstituzioa. Ordenamendu juridikoaren balio nagusiak. Oinarrizko eskubideak eta betebeharrak: Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak. Herritarren eskubideak eta betebeharrak. Oinarrizko eskubideen bermeak. Estatuaren lurralde-antolaketa.

2. gaia. Euskal Herriaren autonomia-estatutua. Euskal Autonomia Erkidegoaren izaera eta antolaketa instituzionala. Autonomia-erkidegoaren eskumenak. Eusko Legebiltzarra: osaera eta eginkizunak. Eusko Jaurilaritza eta lehendakaria.

3. gaia. 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Toki-autonomiaren printzipioak. Udalerria: udal-eskumenak eta -ahalak. Udal-antolaketa: alkatea, osoko bilkura eta gobernu-batzarra. Herritarren parte-hartzea eta gardentasuna toki-administrazioaren arloan.

4. gaia. 12/2023 Legea, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sistemarena. Legearen xedea eta aplikazio-eremua. Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren antolamendua. Suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuak. Larrialdiak koordinatzea eta kudeatzea. Larrialdien aurreko plangintza eta erantzuna.

5. gaia. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua onartzen duena. Herri Administrazioen zerbitzuko langileen motak. Enplegatu publikoen eskubideak eta betebeharrak. Jokabide-kodea eta printzipio etikoak. Diziiplina-araubidea: faltak eta zehapenak.

6. gaia. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategia onartzen duena. Xedea. Aplikazio-eremua. Printzipio orokorrak. Eskumenak eta eginkizunak.

7. gaia. 10/1982 Legea, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa. Euskara eta gaztelania hizkuntza ofizial gisa aitortzea. Herritarren hizkuntza-eskubideak. Euskararen erabilera administrazio publikoetan.

8. gaia. 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. Lan-arriskuen aurrean babesa izateko eskubidea. Prebentzio-ekintzaren printzipioak. Langileen eta administrazio publikoen eskubideak eta betebeharrak. Prebentzioaren arloko informazioa, prestakuntza eta parte-hartzea.

GAI ESPEZIFIKOAK

9. gaia. Trafiko-istripuetako erreskatean norbera babesteko tresneria. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

10. gaia. Askatzeko tresnak eta materialak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

- 11. gaia.** Eraikuntza-printzipioak eta egiturak egonkortzea. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 12. gaia.** Suteen kontra borrokatzeko printzipioak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 13. gaia.** Baso-suteak: landaretza-sua. Basoetako suteen dinamika eta hedapena errazten duten faktoreak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 14. gaia.** Suteen prebentzioa. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 15. gaia.** Arrisku naturalak: arrisku naturalen tipologia. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 16. gaia.** Arriskua gai arriskutsuekin gertatutako istripuetan: identifikazioa, zerikusia duten fisikako eta kimikako oinarritzko kontzeptuak, NBEak eta deskontaminazioa. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 17. gaia.** Arriskua gai arriskutsuekin gertatutako istripuetan: esku hartzeko jarraibide orokorrak eta gai arriskutsuak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 18. gaia.** Arnasa babesteko ekipoak: toxikotasuna suteetan eta arnas-arriskuak. Arnasbideak babesteko ekipoen sailkapena. Aire-kontsumoa kalkulatzeko. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 19. gaia.** Sua itzaltzeko bitartekoak. Eragiketak eta instalazioak mahukekin: lantzak, mahukak, errakoreak, su-itxalgailu eramangarriak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 20. gaia.** Arnasketaren fisiologia. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 21. gaia.** Ponpak. Suhiltzaileentzako oinarritzko hidraulika. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 22. gaia.** Banaketa-sareak eta instalazioak. 3.3.A. Suhiltzaileentzako elektrizitatea. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 23. gaia.** Banaketa-sareak eta instalazioak. 3.3.B. Gas instalazioetan eta banaketa-sareetan esku hartzea, eta 3.3.C. Igogailuak (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 24. gaia.** Tresna eta ekipoak erabiltzea. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).
- 25. gaia.** SPISZren ibilgailuak (SPISZ-Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamendu Zerbitzua): A. Ibilgailuak / Lehentasuna duten ibilgailuentzako trafiko-arauak (10-14). (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

26. gaia. Euskadiko Babes Zibileko Plana (LABI): kontzeptuak eta larrialdiaren faseak definitzea. Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Plana aktibatzea. (Urtarrilaren 13ko 1/2015 Dekretuaren eranskina: III. kapitulua, 1. eta 2. apartatuak)

27. gaia. Larrialdietan Laguntzeko Euskal Sistemaren taktika operatiboak, Herrizaingo sailburuaren 2001eko Aginduen bitartez onetsiak (2001eko irailaren 13ko EHAA, 178. zk.). Taktika operatiboen zerrenda orokorra. (Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 6. argitalpena, 2023ko maiatza; ISBN 978-84-457-3694-4; 8-18 or.)

28. gaia. Larrialdietan Laguntzeko Euskal Sistemaren taktika operatiboak, Herrizaingo sailburuaren 2001eko Aginduen bitartez onetsiak (2001eko irailaren 13ko EHAA, 178. zk.). Taktika operatiboen xedapen komunak. (Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 6. argitalpena, 2023ko maiatza; ISBN 978-84-457-3694-4; 19-26 or.)

29. gaia. 12/2023 Legea, azaroaren 23koa, Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuei buruzkoa. Zioen azalpena eta I. kapitulua.

30. gaia. 12/2023 Legea, azaroaren 23koa, Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuei buruzkoa. II. eta III. kapituluak

31. gaia. 12/2023 Legea, azaroaren 23koa, Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuei buruzkoa. IV. kapitulua eta xedapenak.

32. gaia. 1/2017 Legegintzako Dekretua, Larrialdiak Kudeatzeari buruzko Legearen testu bategina onesten duena. I., II., III. eta IV. kapituluak.

33. gaia. PO B1 Egunekeo txanda-esleipena

34. gaia. PO B2 Irteeren tipifikazioa

35. gaia. PO B3 Ekipamendu pertsonala

36. gaia. PO B4 Kudeaketa operatiboa eta esku-hartzeetako agintea

37. gaia. PO B5 Dei anizkoitzak

38. gaia. PO B8 Interbentzio osteko higienizazioa

39. gaia. PO I1 Egiturazko suteak

40. gaia. PO S1 Erreskatea trafiko-istripuetan eta harrapatzeetan